

# 2026ko Euskal Herriko manifestu ekosozialista

## *10 años de ecosocialismo en Euskal Herria*

### **Mundu jasangaitzagoa eta bortitzagoa**

Duela 10 urte, Euskal Herrian egindako Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistaren amaierako manifestuak muga biofisikoak gainditzeak eragindako *urgentzia ekologikoa* aipatzen zuen modu esplizituan; gainera, derrigorrezko lekualdatzeek, prekarietateek eta gero eta bortizkeria handiagoek sortutako *larrialdi sozialaz* ere ohartarazten zuen, eta hertsiki lotutako arazo bi horien jatorria kapitalismoaren funtsean dagoen ordena instituzionalizatuan kokatzen zuen. Eta fokua ipintzen zuen irabazi korporatiboen maximizazioaren dinamikak sustatutako hazkunde mugagabearen.

10 urte geroago, zoritxarrez, azterketa hori ziurra eta premonitorioa dela ikusten da, eta agerian uzten du premiazko eta sakoneko erronken aurrean nazioarteko komunitatearen gelditasun instituzional nabarmena. Hala ere, duela hamarkada bat egindako diagnostikoa ez da erabat gai izan gaur egun nazioarteko panoraman antzeman daitezken fenomeno kaltegarrien zabaltasuna eta intentsitatea jasotzeko.

Ekologiari dagokionez, eta Stockholmeko Erresilientzia Zentroaren arabera, 2025ean jada gainditu ziren *planetaren bederatzia muga biofisikoetatik zazpi*: klima aldaketa  $-1,44$  °C-ko igoera industria aurreko garaiarekin alderatuta-, biodibertsitatea, deforestazioa, ur geza, nitrogenoaren eta fosforoaren zikloak, kutsadura kimikoa eta ozeanoen azidotzea; hau da, ozono-geruzaren agortzea eta atmosferako aerosolen gainezkatzea kenduta, beste guztiak. 2015ean, berriz, lau muga baino ez zeuden gaindituta.

Ekonomiari dagokionez, nazioarteko dinamika okerra larriagotu egin da azken urteotan 2008ko finantza-etzandak hauspotuta, eta ez du hobera egiteko itxurarik. Kapitalismoa *gripatuta* dago – egungo hamarkadarako espero den hazkundera % 2,4koa baino ez da–, *gain-ekoizpen* arazoak ditu eta arnas apur bat bakarrik finantzek ematen diete. Beste era batera esanda, garapenaren tarta txikitzen ari da –batez ere, langileentzat–, hura bereganatzeko lehiatzen ari diren kapitalak ugariak dira eta zero baturako joko batean bakarrik bat irabazten ari da, Txina, bereziki sektore estrategiko askotan. Esparru hori oso ezegonkorra da, eta mota guztietako etzandak gertatzeko arriskua areagutzen ari da.

Egoera horretan, merkatuak, merkataritza-ibilbideak (Groenlandia, Ekialde Ertaina), inbertsio estrategikoak (adimen artifiziala, erdieroaleak, ekonomia berdea) eta, bereziki, energia fosila eta meatzaritza metalikoa kontrolatzeko muturreko lehiak sustatutako gerra ekonomikoa inposatzen ari da.

Ondorioz, eta termino politikoetan, multilateralismoan, arau partekatuetan eta demokrazia liberalean oinarritutako nazioarteko ordena birrindu egin da azken bosturtekoan. Nahiz eta ordena hau mendebaldeko potentzien aldeko gobernantza-eredu lerratua izan, bere korporazioen interesak blindatzen zituen *lex mercatoria* batek tinkatua izan eta intentsitate demokratiko txikiko esparru batek definitua izan, krisi globalaren testuinguruak eta Txinaren ekonomia hegemoniko bihurtzeko bidean izateak munduko taula hankaz gora jarri du.

Orain, *eskuin muturreko* agenda erreakzionario eta autoritarioek, *indarra eta indarkeria* balio indartsu gisa sustatzen ari dira, eta egungo panorama politikoan *gerra-erregimena* nagusitzen ari da, neurri handi batean, AEBek eta bere aliatuek, Israelek eta Europar Batasunak, eraginda. Horrela, gerra eta eraso inperialisten sekuentzia bizkortu egin da –Ukraina, genozidioa Gazan, Venezuelan,

Iranen-. Gainera, espiral militarista hori *gatazka nuklear*aren arriskuak markatutako testuinguruan ematen ari da.

Zalantzarik gabe, herritarren gehiengoak eta langile klaseak, oro har, pairatzen ditugu kapitalismoa sortzen ari den ekaitz perfektu horren ondorio larriak. Hondamendi naturalei lehen lerroan aurre egiten diegunak gara. Modu asimetrikoan bada ere, gure bizitzak, esplotatuak eta prekarizatuak, erreproduzitzeko gero eta zailtasun handiagoak ditugunak. Ondasun komunetik eta gure lanetatik desjabetu gaituztenak. Arrazoi ekonomikoak, politikoak eta ingurumenekoak direla-eta, lekuz aldatu behar izan dugunak. Esquin muturraren erasoei eta bere agenda erreakzionarioei aurre egiten diegunak. Militarismoaren eta gerraren biktima zuzen bihurtu garenak.

## **Agenda ekosozialista, inoiz baino beharrezkoagoa eta premiazkoagoa**

Aurreko atalean azaldutako diagnostiko orokorraren aurrean, 2016an Euskal Herrian egindako Topaketaren manifestuak *kapitalismo berdearen* sirena-kantuez ere ohartarazten zuen. Uste zuen kontsumo-eredu bera eta urgentzia ekologikoa eta gizarte-larrialdia sortu dituzten egitura berak errepikatzeak arriskua suposatzen zuela. Gaur egun *kapitalismo berde oliba eta digital* bihurtu da, pandemiaren osteko bertsio hegemoniko gisa. Kapitalismoaren bertsio horrek hauxe planteatzen du: aliantza publiko-pribatuen eta energian, ekonomia berdean, digitalizazioan eta armamentuan inbertsio masiboen arteko batuketak hazkunde egonkor eta orokortura eramango gaituela, bai eta hazkunde horretatik desakoplatzera ere, bai emisio kutsatzaileetatik, bai kontsumo energetiko eta materialetik.

Hala ere, agenda ofizial horren inpaktua planteatutakoaren guztiz kontrakoa da: ez da geldialdi ekonomikoa lehengorazten, ez da iraunkortasunari dagokionez aurrera egiten eta termino absolutuetan ez dira murrizten emisioak eta kontsumo fisikoa. Egia da murriztu direla lurralde espezifiko batzuetan, baina inoiz ez konprometitutako erritmoan eta ezta ere herrialde edo eskualde bakoitzak parte hartzen duen balio-kateen izaera globala kontuan hartuta. Aitzitik, *botere korporatiboaren* protagonismoa indartzen ari da –eta, ondorioz, irabaziaren maximizazioa funtsezko helburu gisa–, *erauzketa-dinamika* sendotzen ari da –batez ere energia eta meatzaritza metalikoa–, eta hornidura estrategikoak ziurtatzeko gerra ekonomikoa azkartzen ari da, eta, egungo eskalada militaristaren barruan, gerra-erregimena bera ere.

Beraz, kapitalismo berde oliba eta digitalak ez du irtenbiderik ematen. Aitzitik, aurre egin behar diogun agenda defendatzen du. Horren *bertsio neokeynesian* ere ez dira irtenbide. Izan ere, gobernu aurrerakoietatik trantsizio-estrategia nazionalak zuzentzea planteatzen dute, eta bide-orrian enpresa handiekin akordioak egitea, berrikuntza teknologikoak sustatzea eta aldaketa soziologiko progresiboak bultzatzea aldarrikatzen dute. Neokeynesian horiek klima-larrialdia deskontestualizatu egiten dute, ez baitute gaur egungo nazioarteko panorama definitzen duten parametroen multzoa integratzen. Ondorioz, sakoneko edozein eraldaketa eta herri-mobilizazioa sortzeko beharra saihesten dute; klase-borroka ukatzen dute; jabetza publikoaren garrantzi estrategikoa gutxiesten dute; eta ez dute kontuan hartzen geldialdi sekularrak eta gehiegizko produkzio-ahalmenak zeharkatzen duten botere korporatiboaren izaera *retardista*.

Hortaz, indartu egiten dugu ekosozialismoaren aldeko apustua, hori baita, gure ustez, *egungo egoera* erroto gaitzeko agenda estrategikoa. Eta apustu hori Euskal Herri egiten dugu, bere idiosinkrasia duen herrialde batetik, baina, zalantzarik gabe, gaur egun testuinguru globala definitzen duten aldagaiek ere zeharkatzen duten herrialdetik: Ipar Globaleko herrialdea, baina subiranotasunik ez duena eremu estrategiko guztietan erabakiak hartzeko; errenta altuko herrialdea, baina matrize ekonomiko kaltebera duena –automobilgintza, aeronautika, energia, makina-erreminta, siderometalurgia, armamentu-sektorea etab.–; energetikoki fosila den eta kanpokoarekiko erabat mendekoa den herrialdea; botere korporatiboaren aldeko politiketan

murgildutako erakundeak dituen; eta gehiago sindikal konfrontatiboa eta klasekoa duen eta herri mobilizazio nabarmeneko ibilbide historiko duen herrialdea.

Euskal Herriko mugimendu ekosozialistarentzat, azken hamarkada ikasketa bizkorreko eta heldutasun politikorako urratsak emateko garaia izan da. Nazioarteko III. Topaketa Ekosozialistatik, borroka ekosozialek funtsezko lau norabidetan egin dute aurrera: feminismoaren, ekologismoaren eta sindikalismoaren arteko artikulazio interseksionala (euskal gehiago sindikalak ikuspegi ekosozialista esplizituki erreibindikatzen du); 2020ko pentsio eta bitzta duinen aldeko greba orokorra; 2023ko greba orokor feminista zaintza-sistema publiko-komunitario baten defentsan; lurralde-errotzea, esperientzia zehatzetan gauzatua (Busturialdea-Urdaibaiko iraunkortasun-indizearen proiektua edo Mecanerren birmoldaketa industrialari laguntzeko ekimena); lurraldeak defendatzea megaproiektu korporatiboen aurrean (Guggenheim Urdaibai museoa, besteak beste); eta pedagogia ekosozialista eraikitzea, bere hedapena eta garapena errazteko.

Ikasi dugu, halaber, garaipen partzialak posible eta beharrezkoak direla eta ez dagoela trantsizio justurik gatazkarik eta herri-mobilizaziorik gabe. Baita ere, Euskal Herriko ekosozialismoak zentzua duela soilik komunitetik, feminismitik eta internazionalismitik –Hegoalde globaleko herriekin etengabeko elkarrizketan– eraikitzen bada.

Hortaz, lau koloreko bandera (ekologismoaren berdea, justizia sozialaren gorria, feminismoaren bioleta eta herritarren ahalduntzearen beltza) duen ekosozialismoaren alde egiten dugu eta honela eraiki nahi dugu:

1. *Statu quo*-arekin konfrontazioan, langile-klasearen aniztasun osoarentzat bitzta duinen iraunkortasuna erdigunean jarritz.
2. Klase-borrokaren eta borroka feministaren, ekologistaren, antiarrazistaren, internazionalistaren eta antimilitaristaren arteko loturak ehunduz.
3. Gaur egun kapitalismoaren inguruko ordena instituzionalizatua gainditzea esplizituki planteatzen duen horizontearen alde eginez.
4. *Bidezko trantsizio ekosozialeko estrategiak* bultzatuz, eta horretarako, hemen eta orain, honako lerro hauek sustatuz: desmerkantilizazioa, deskorporatibizazioa, emantzipazioa, komunaren protagonismoa, eredu soziala muga biofisikoetara egokitzea eta lan guztiak (produktiboak eta erreproduktiboak) errotik birbanatzea.

*Trantsizio ekosozial justuko estrategia* horiek, gako hauexek hartu behar dituzte kontuan:

5. *Plangintza demokratiko eta loteslearen* aldeko apustua, horixe baita ezinbesteko tresna langile-klasearen eta naturaren interesari eta eskubideei erantzuteko.
6. *Jabetza publikoaren eta komunitarioaren* protagonismoa, prozesuaren kontrol kolektiborako eta bideragarritasunerako berme bakarra baita.
7. *Herritarren parte-hartze zuzena*, garaiko erronka politikoaren aurrean nahitaezko baldintza demokratikoa baita.
8. *Justizia globala*, inperialismoa eta neokolonialismoa indartzen ari diren munduaren aurrean funtsezkoa baita.
9. *Era guztietako alternatibak garatzea*, megaproiektuen egungo hegemoniaren aurrean.
10. Herri-mugimenduen eta klase-sindikatuaren arteko dinamika bateratuak artikulatzea *bizitzaren aldeko sareak* sortuz, eraldaketa ekosozialistaren aitzindariak izan daitezzen.

Aipatutako gako estrategiko horiek gidatuta, hona hemen agenda ekosozialista berrien funtsezko ezaugarri batzuk:

11. Pertsonen zein ekosistemen *bizitzaren zaintza* erdigunean jartzea.
12. *Desazkunde justu eta asimetrikoa, elektrifikazioa eta sakoneko eraldaketa* sozial, ekonomiko eta kulturalaren bultzada horizonte gisa kokatzea.

13. Komunaren mesedetan langileen bizitzaren materialtasuna eraldatzen duten proposamenetatik *eskuin mutur erreakzionario eta ukatzaileari* aurre egitea.
14. Egungo deriba militaristaren eta NATOren egitura nagusien aurrean, inolako zalantzarik gabe "*gerra ez*" defendatzea.
15. Gaur egun merkataritza- eta inbertsio-itunek eta enpresa transnazionalen interesak iraunarazteko beste formula batzuek blindaturiko *inpunitate korporatiboaren arkitektura* eraistera jotzea.
16. Aberastasuna eta lan guztiak erabat birbanatzeko apustua egitea.
17. Elikadura-burujabetza, ekonomia feminista, ekonomia solidarioa eta antzeko ikuspegiak lehenetsiz eta birkokapena, burujabetza eta lurraldearen oreka eta kohesioa sustatuz, matrize ekonomiko-energetikoak aldatzea.
18. *Etxebizitza, zaintza, hezkuntza eta osasuna* eskubide publiko gisa hartzeko eta merkantilizaziotik libre eta, beraz, dinamika kapitalistatik kanpo uzteko bidean aurrera egitea.

Jakin badakigu elite ekonomiko eta politikoen egungo agendak ezinbestean ekozidiodia eta genozidiodia ezaugarritzat dituen egoera batera garamatzala. Horien proportzioa zaila da aurreikusten, baina argi dugu ondorio izugarriak izango dituela, batez ere pertsona eta herri ahulentzat. Diagnostikoa argia da: ekosozialismo feminista edo basakeria. Egin dezagun langile-klasearen bizitza, natura eta eskubideak defendatzearen aldeko apustua, hemen eta orain, espazio guztietan eta esparru guztietatik.

***Gora Euskal Herriko langileria! Gora munduko langileria!***



# Manifiesto Ecosocialista de Euskal Herria 2026

## *10 urteko ekosozialismoa Euskal Herrian*

### **Diez años después: Un mundo más insostenible y violento**

Hace 10 años, el manifiesto final del III Encuentro Ecosocialista Internacional celebrado en Euskal Herria mencionaba de manera explícita la *urgencia ecológica* provocada por la superación de los límites biofísicos, y alertaba de la *emergencia social* generada por desplazamientos migratorios forzosos, precariedades y violencias crecientes, situando el origen de estos dos problemas –estrechamente relacionados– en el orden institucionalizado en torno al sistema capitalista. Más específicamente, en su dinámica de *crecimiento ilimitado*, en función de la maximización de las ganancias corporativas.

10 años después, lamentablemente, este análisis se muestra certero y premonitorio, poniendo de manifiesto la más que evidente inacción ecosocial de la comunidad internacional ante unos retos urgentes y de calado. No obstante, el diagnóstico realizado hace una década apenas era capaz de prever la amplitud e intensidad de los funestos fenómenos que definen hoy en día el panorama internacional.

En términos ecológicos, y según el Centro de Resiliencia de Estocolmo, en 2025 se superaron ya *siete de los nueve límites biofísicos* planetarios: cambio climático –1,44 °C de incremento respecto a la época preindustrial–, biodiversidad, deforestación, agua dulce, ciclos del nitrógeno y el fósforo, contaminación química y acidificación de los océanos, todos los cuales han trascendido sus márgenes de seguridad –cuando *solo* cuatro lo habían hecho en 2015–, mientras que los dos restantes –el agotamiento de la capa de ozono y la carga de aerosoles atmosféricos– quedarían como los únicos dos ámbitos no sobrepasados.

En términos económicos la errática dinámica internacional, azuzada por el estallido financiero de 2008, se ha agravado en los últimos años, sin viso alguno de mejora. El capitalismo está *estancado* –un magro 2,4 % de crecimiento esperado para la década presente–, sufre de *sobrecapacidad productiva*, y apenas la *financiarización* lo sostiene con respiración asistida. En otras palabras, la tarta del crecimiento se achica –especialmente para las y los trabajadores–, los capitales que pugnan por la misma son abundantes –desarrollándose un juego de suma cero en el que solo uno gana, siendo este China en la mayoría de muchos rubros estratégicos–, y el marco en el que estos actúan es altamente inestable, incrementándose el *riesgo de estallidos* de todo tipo.

Se impone de este modo la *guerra económica* como sentido de época, a través de una competencia extrema por el control de mercados, rutas comerciales (Groenlandia, Oriente Medio), inversiones estratégicas (inteligencia artificial, semiconductores, economía verde) y, muy especialmente, el acaparamiento de suministros como las energías fósiles y la minería metálica.

En coherencia, y en términos políticos, el orden internacional basado en el multilateralismo, las reglas compartidas y la democracia liberal, ha saltado por los aires en el último lustro. Pese a tratarse este de un modelo de gobernanza sesgado a favor de las potencias occidentales, apuntalado por una *lex mercatoria* que blinda los intereses de sus corporaciones, y definido por un marco de baja intensidad democrática, el contexto de crisis global y la consolidación de China como hegemon económico han modificado el tablero mundial.

Ahora son las agendas reaccionarias y autoritarias de las *extremas derechas*, con la *fuerza y la violencia* como valores fuertes, así como el avance del *régimen de guerra*, quienes imperan en un

panorama político trastocado en sus principales términos por EE. UU. y sus aliados, entre ellos Israel y la Unión Europea. La secuencia de guerras y agresiones imperialistas se acelera de este modo – Ucrania, genocidio en Gaza, Venezuela, Irán–, dentro de una peligrosa espiral militarista, en un contexto marcado por el riesgo de *contienda nuclear*.

Sin duda, somos las mayorías populares y la clase trabajadora en su conjunto quienes sufrimos de manera específica los embates de esta tormenta perfecta que está generando el capitalismo. Quienes enfrentamos en primera línea los desastres naturales. Quienes, de una manera cruelmente asimétrica, tenemos crecientes dificultades para la reproducción de nuestras vidas, explotadas y atravesadas por una precariedad cada vez más generalizada. Quienes somos expropiadas de lo común, y de nuestros propios trabajos. Quienes nos vemos obligadas a emigrar por motivos económicos, políticos, y/o ambientales. Quienes resistimos las agresiones de la extrema derecha y sus agendas reaccionarias. Quienes nos convertimos en las primeras víctimas directas del militarismo y de la guerra.

### **Agenda ecosocialista, más necesaria y urgente que nunca**

Frente al diagnóstico global expuesto en el apartado anterior, el manifiesto del Encuentro celebrado en Euskal Herria en 2016 también alertaba de los cantos de sirena del *capitalismo verde*, que amenazaba con reproducir el mismo modelo de consumo y perpetuar las mismas estructuras que generaron la urgencia ecológica y la emergencia social. Este, reconvertido hoy en *capitalismo verde oliva y digital* –como versión hegemónica tras la pandemia– pretende que la suma de alianzas público-privadas e inversiones masivas en energía, economía verde, digitalización y armamento, ofrecen una oportunidad económica y una respuesta política a la conflictividad geopolítica que el propio sistema ha generado, conduciéndonos hacia un horizonte de crecimiento estable y generalizado, así como a un desacoplamiento de dicho crecimiento, con respecto a las emisiones contaminantes, y frente al consumo energético y material.

El impacto real de esta agenda oficial, no obstante, es diametralmente opuesto al planteado: ni se revierte el estancamiento económico, ni se avanza en términos de sostenibilidad, ni se reducen en términos absolutos las emisiones y el consumo físico –sí en algún territorio específico, pero nunca al ritmo comprometido, y, sin tener en cuenta la naturaleza global de las cadenas de valor en las que cada país o región están involucrados–. Por el contrario, se refuerza el *poder corporativo* como protagonista –y por tanto la vigencia de la maximización de la ganancia como meta fundamental–, se consolida la *dinámica extractivista* –sobre todo de energía y minería metálica–, y se azuza la guerra económica respecto a los suministros estratégicos, así como el régimen de guerra dentro de la escalada militarista que lo define.

Por lo tanto, este capitalismo verde oliva y digital no supone solución alguna sino, al contrario, es la agenda con la que explícitamente hay que confrontar. Tampoco lo son las *versiones neokeynesianas* de este que, comprando su marco general y descontextualizando la emergencia climática respecto al conjunto de parámetros que definen el panorama internacional actual, plantean dirigir estrategias nacionales de transición desde gobiernos “progresistas” a través de una mezcla de pactismo con las grandes empresas, innovaciones tecnológicas y cambios sociológicos progresivos. Evitan, en consecuencia, cualquier transformación en profundidad y renuncian a la necesidad de generar movilización popular; niegan la lucha de clases; soslayan la relevancia estratégica de la propiedad pública; y obvian el carácter retardista de un poder corporativo, atravesado por el estancamiento secular y la sobrecapacidad productiva.

Queremos, por tanto, reforzar nuestra apuesta por el *ecosocialismo* como agenda estratégica de superación radical del *estado de cosas actual*. Y lo hacemos desde Euskal Herria, un país con su idiosincrasia, pero también atravesado por muchas de las variables que definen el contexto global en la actualidad: un país del Norte Global, pero sin soberanía para tomar decisiones en todos los

ámbitos estratégicos; un país de renta alta, pero con una matriz económica vulnerable –automoción, aeronáutica, máquina-herramienta, siderometalurgia, sector armamentístico, etc.–; un país muy consumidor de energías fósiles, pero absolutamente dependiente del exterior; un país con instituciones volcadas en políticas en favor del poder corporativo, apuntalando su dinámica desde la esfera pública; un país, también, que cuenta con una mayoría sindical confrontativa y de clase, así como con una trayectoria de notable movilización popular.

Para el movimiento ecosocialista de Euskal Herria, la última década ha sido un tiempo de aprendizaje acelerado y de maduración política. Desde los III Encuentros Ecosocialistas Internacionales, las luchas ecosociales han avanzado en cuatro direcciones clave: la articulación interseccional entre sindicalismo, feminismo y ecologismo –con la mayoría sindical vasca asumiendo posiciones explícitamente ecosocialistas–; la huelga general por unas pensiones y vidas dignas de 2020; la huelga general feminista de 2023 en defensa de un sistema público-comunitario de cuidados; el arraigo territorial materializado en experiencias concretas (el proyecto de un Índice de sostenibilidad de Busturialdea-Urdaibai o el acompañamiento a la reconversión industrial de Mecaner); la defensa del territorio frente a los megaproyectos corporativos (Guggenheim Urdaibai, entre otros); y la construcción de una pedagogía ecosocialista que facilite su difusión y desarrollo.

Hemos aprendido también que las victorias parciales son posibles y necesarias. Que no hay transición justa sin conflicto ni movilización popular. Que el ecosocialismo en Euskal Herria solo tiene sentido si se construye desde lo común, lo feminista y lo internacionalista, en diálogo permanente con los pueblos del Sur global.

Abogamos pues por un *ecosocialismo* que, bajo una bandera de cuatro colores (verde ecologista, rojo de la justicia social, violeta feminista y negro del empoderamiento ciudadano) se construya sobre:

1. La *confrontación* con el *statu quo*, situando en el centro la *sostenibilidad de vidas dignas* para la clase trabajadora, en su conjunto y con su diversidad.
2. El *vínculo de necesidad* entre las luchas de clase, feministas, ecologistas, antirracistas, internacionalistas y antimilitaristas.
3. Un horizonte que sitúe la explícita *superación del orden hoy institucionalizado en torno al capitalismo*.
4. *Estrategias de transición ecosocial justa* que, aquí y ahora, permitan avanzar en términos de desmercantilización, descorporativización, emancipación, protagonismo de lo común, ajuste del modelo social a los límites biofísicos, y redistribución radical de la riqueza y de todos los trabajos (productivos y reproductivos).

Unas *estrategias de transición ecosocial justa* definidas por las siguientes claves:

5. La apuesta por una *planificación democrática y vinculante*, como herramienta indispensable para responder al interés y los derechos, tanto de la clase trabajadora como de la naturaleza.
6. El protagonismo de la *propiedad pública y comunitaria* como única garantía de control colectivo y viabilidad del proceso.
7. La *participación popular* como condición democrática, ante un reto político de época.
8. La *justicia global*, dentro de un panorama crecientemente imperialista y neocolonial.
9. El desarrollo de alternativas *de todo tipo*, frente a la hegemonía actual de los megaproyectos.
10. La articulación entre *movimientos populares y sindicatos de clase*, en dinámicas conjuntas para crear *redes a favor de la vida* que sean la punta de lanza de la transformación ecosocialista.

Estas claves estratégicas, en última instancia, deberían atravesar y dotar de identidad al impulso de nuevas *agendas ecosocialistas*:

11. que pongan en el centro el cuidado de la vida, tanto de las personas, como de los ecosistemas;
12. que sitúen como horizonte el *decrecimiento justo y asimétrico*, la *electrificación* y el impulso de profundas *transformaciones sociales, económicas y culturales*;
13. que incidan en la *disputa con la extrema derecha reaccionaria y negacionista*, desde propuestas que transformen la materialidad de la vida de las y los trabajadores en beneficio de lo común;
14. que defiendan sin tapujos el "*no a la guerra*", enfrentando la deriva militarista y sus estructuras principales, como la OTAN;
15. que apunten al *desmantelamiento de la arquitectura de la impunidad corporativa, blindada hoy por* tratados de comercio e inversión, y otras fórmulas de perpetuar los intereses de las empresas transnacionales;
16. que apuesten por una redistribución radical de la riqueza y de todos los trabajos;
17. que abunden en cambiar las *matrices económico-energéticas*, priorizando enfoques como la soberanía alimentaria, la economía feminista, la economía solidaria, etc., mediante la relocalización, la soberanía, la cohesión y el equilibrio territorial.
18. que avancen en la consideración de ámbitos sociales como *vivienda, cuidados, educación y salud* como derechos públicos, libres de mercantilización y, por tanto, ajenos a la dinámica capitalista.

Somos conscientes de que la actual agenda de las élites económicas y políticas, nos arrastra irremediabilmente a un escenario caracterizado por un ecocidio y genocidio, de proporciones difícilmente predecibles, pero de terribles consecuencias, sobre todo para las personas y pueblos más vulnerables. La disyuntiva es clara: ecosocialismo feminista o barbarie. Apostemos entonces por defender la vida, la naturaleza y los derechos de la clase trabajadora, aquí y ahora, en todos los espacios y desde todos los ámbitos.

***Gora Euskal Herriko langileria! Gora munduko langileria!***

